




DESKRIBAPENA

Jaizkibeleko hegoaldeko magala zeharkatzen duen 11 km-ko mendiko ibilbidea. Oinez egiteko diseinatua, baina mendian ibiltzea ohituta daudenentzat gomendatua. Nahiz eta hasiera malkartsua izan, 2. km-tik aurrera ibilbidea erosoagoa bihurtzen da. Ikuspegi panoramiko ederrak eta garrantzia kultural eta historiko handia duten elementuak ikusi daitezke.



Malda metatua

1042m

Denbora



3h30min

Maila


Erdia

Distantzia


11km

1.1

XOXOLURRA PARKEA




Iparragirreko errekan eta haren inguruetan garai bateko giza jardueren aztarnak topa daitezke. Errota zahar bateko presaren hondakinak Goikoerrotan, zutik dagoen karobi bat eta karea egiteko erabili ziren beste zenbait zulo Karobietan, su egur edo inaurkin bila joateko erabiltzen zen gurdibide zaharra...



1.2


IPARRAGIRRE DEPOSITUA



Lezoan erabiltzen diren urak Jaizkibel menditik eta Añarbeko urtegitik datoz. Iparragirreko depositua 1915ean eraiki zuten, eta herriko zaharrena da. Bere 220 metro kuboko edukierarekin handiena ere izan zen Arriandiko depositua eraiki zuten arte. Iparragirre baserriaren horma zaharrak ondo-ondoan ditu.

2.1

LORBIDE BIDEA



Olazar baserritik Sarastiko harrobira doan gurdibidea oso zaharra da, eta zenbait lekutan garai bateko harlauza handiak ikus daitezke. Bide honetan barrena gero itsasontzien eraikuntzan erabiliko ziren haritz enborrak garraiatzen ziren. Lorbide baserriaren hondakinak ere bertako gain batean daude.

1.4


AMEZTI BASERRIA



XIX. mendean eraikitako baserri txikia da Amezti. Eta artzaintza izan da beti bertako jarduera nagusia, historiaurreko garaietatik Jaizkibel mendian ondo errotutako ogibidea. Ardi-abereak balio handikoak ziren produktuak ematen ditu: gazta, esnea, larrua, artilea eta haragia, besteak beste.

1.3

TORREAZPI PUTZUA



2011n Lezoko Unibertsitateko Udalak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren laguntzarekin tamaina txikiko hezegune hau eratu zuen, urgune gutxi dituen eremu batean, anfibio, hegazti eta ur-intsektuentzako mesedegarri izateko.